

# ArteDrama ADELE12

Euskal Laborategia

**Aulestin (Bizkaia) / Apirilaren 9tik 15era**



**Artedrama Euskal Laborategia (ADEL)**, arte eszenikoetan euskaraz lan egiten dugunontzat topagune izango da aurtengo ere; aktore, zuzendari, antzerkigile zein antzerkizale guztientzako urtero zabaltzen den gunea. Profesional zein ikasleentzako bideratuta dago aurtengo edizioa, beti ere Euskal Herriko arte eszenikoetan murgilduta gaudenon arteko eztabaidak eta elkartrukeak sustatzeko asmoarekin. Aldi berean, ADEL 2012n gain hartzen duten profesionalak eskeiniko dituzten ekintza irekiez aparte, Aulestiko herriak ere hainbat erakustaldi eta ekintza dramatiko jasoko ditu ADELeko partaideen eskutik, ARTEDRAMA ASTEA-ren barruan.

Orain dela zenbait urte laborategi gisa jaiotako topagune honek badu oraindik zer hobetzerik. Aurreko edizioetan bezala, gure aurrekontu mugatuak ez digu uzten guk nahiko genituzkeen espermentazio saio, erakusleho zein artxibazio zentruak sortzen, hala ere, oztopoak oztopo, ADELe badu zer eskeintzerik, lan apal baina sakon bati esker, euskal arte eszenikoen esparruan, bai profesionali eta bai aditu zein zaleei. Aspaldi lanean dabiltzan ikerlari eta sortzaileak izango dira gurekin irakasle eta solaskide moduan.

**MATRICULA** ikastaro trinkoaren salneurria **350 €** da. Prezio honetan ikastaroaz gain, eguneko otorduak eta lotarako lekua ere barne daude.

**HIZKUNTZA** Ikastaro guztiak euskaraz izango dira.

**Hauek dira aste honetan gurekin egongo diren irakasleak:**

**ANDER LIPUS**

**IÑAKI ZIARRUSTA**

**ANA ELORDI**

**EÑAUT GANTXEGI**

**ASIER SOTA**

# IRAKASLEAK ADEL12

## ANDER LIPUS

William Layton Antzerki Laborategian egin zituen ikasketak eta Madrilan zazpi urtez lanean egon ondoren, Bilbora itzuli eta beste artista batzuekin Mina espazioa sortu zuen. Harrezkero, bere ibilbidea antzerki ikerketa eta esperimentazioara bideratu zuen. Antzerki antropologian aditua, zenbait ikastaro eta antzerki eskoletan irakasle izan da. 1998an Antzerkiola Imaginarioa taldea sortu eta aktore eta zuzendari lanetan aritu da ordutik. Beste zenbait talde eta proiektuetan ere egin du lan: Txalo, Hortzmuga, Sagarroi, Doctor Deseo, Xiru, Hika, Agerre Teatroa...

## IÑAKI ZIARRUSTA

20 urte daroaz antzerki munduan sartuta. Gehienak, Gaitzerdin, eta egun, 2010. urtetik hona, ATX TEATROA konpainiagaz. Aktore, aktoreen entrenatzaile, zuzendari, zuzendari tekniko, eszenografia egile eta itzultzaile beharretan ibili da eta badabil. Honako honek dira ATX Teatroan, bere konpainia barrian, oso errotuta dagozan lanildoak: Euskal Herriko antropologia antzerkian txertatzea, Euskal antzerkia Vs antzerkia euskeraz eta Distopia (Utopiaren kontrakoa).

## ANA ELORDI

Ikasketak Getxoko Antzerki Eskolan hasi, eta Madrileko Willian Layton Laborategian sakondu ondoren, dantza, ahots, inprobisaketa, clown eta kamara aurreko interpretazioko hainbat ikastaro burutu ditu. Bekereke, Traspasos, Ados, Pikor, Keinu eta Trapu Zaharra antzerki taldeekin oholta gainean; "Kutsidazu bidea Ixabel" en pantaila handian eta "Wazemank", "Noaoa" eta "Finlandia" pantalla txikiko saioetan ikusi ahal izan dugu.

## EÑAUT GANTXEGI

Soziologian lizentziatua, gizartea arakatzetik, arte eszenikoak protagonistatzat hartzera igaro da. Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean ikasia, bertan daramazki 4 urte irakasle bezala "Joko Eszenikoa" ikasgaia irakasten. Antzerkia, telebista, zinema eta bestelako arte eszenikoetan jardun, telesailetan lan egin, eta hainbat filmetan parte hartu du. Antzerki talde desberdinekin lan egin izan du: La cubana, La fura dels baus, Ados, Irrien lagunak...

## ASIER SOTA

1997an adierazpen, inprobisazio eta mimo ikasketekin lehen urratsak eman, eta ordutik hamaika ikasketetan aritua, telebistan egindako "Finlandia", "Noaoa", "Brinkola", "Sabin", "Wazemank", "Goenkale" eta "Ander eta konpainia" lanengatik zaigu bereziki ezagun. "Loturak" eta "Eutsi" filmeez gainera, hainbat antzerki lanetan aktore bezala lan egin du. Iaz, estreinekoz "Xentimorik Gabe" obraren zuzendaritzan aritu zen.



# IKASTAROAK ADEL12

## **ANDER LIPUS (12 orduko ikastaroa)**

Talde-lana eta aktorearen autonomia izango dira tailer honek jarraituko dituen ildoak. Mekanika eta adierazpide ezberdinen ikasketek aktorearentzako erreminta mekaniko izateko balioko dute, gero, aktoreak bere ahotsa eta gorputza espazioan landu ditzan. Mekanikatik poetikara, ekintza dramatikoak eraikiko dira, ikerketa, bilaketa eta bide esperimentalak taldeka eta bakarka landuz. Aktorearentzako materialen praktika sortzaileak eta forma aktoral berrien bilaketa dira ikastaroaren xede antzerkiaren labirintoan.

Oharra: Testu bat ikasita ekar beharko du ikasle bakoitzak. Bost minutu inguruko bakarrizketa txiki bat. Bakarrizketa lantzeko beharrezko jantzi eta atrezzoak ere ekarri daitezke.

## **IÑAKI ZIARRUSTA (12 orduko ikastaroa)**

Tarte honetan, ikasle-aktore bakoitzaren alde ilunari emon gura deusagu protagonismoa. Gauzarik interesante, barri eta harrigarrienak zulo baltz horretatik etorten direlakoan gagozalako. Behar fisiko handia, bortizkeria, sexua, mina eta presino psikologiko zein fisikoa jasan beharko dabez gure ikasle-aktoreek, abiapuntu horretatik gure ekintza eta pertsonaiak garatzeko... hori bai, dana maitasunagaz eginda.

Oharra: Ezinbestekoa da ikasle-aktoreak buruz ikasitako bakarrizketa laburra edukitea (200 berbako testua gutxi gora behera).

## **ANA ELORDI (8 orduko ikastaroa)**

Jolas eta lanaren plazerraren bidez inprobisazioaren oinarriak landuko ditugu. Bakoitzak bereganako eta taldearenganako segurtasuna, kontzientzia, erritmoa, energia eta memoria landuz batetik; ingurua (pertsonak eta ekintzak) entzuteko gaitasuna trebatzetik bestetik; eta egoera edo rol batean kontzentratzeko gaitasuna, naturaltasuna eta irudimena entrenatuz azkenik..

## **EÑAUT GANTXEGI (8 orduko ikastaroa)**

Playstoral (Pastoralarekin solasean): Pastoral, gure kulturaren ezaugarri nagusienetako bat da. Baina zer dakigu pastoralei buruz? Antzerkia al da? Dantza? Musikala? Historian gehiegi arakatu gabe, gaur egun pastoralaren denaren inguruko solasaldi bat landuko dugu, aintzinako agerpen eszeniko honen hainbat osagai hartu eta berauekin jokatuaz. Bide batez, orain arte gai honi buruz izan den ikuspuntuari beste aire bat ematen saiatuko gara.

## **ASIER SOTA (8 orduko ikastaroa)**

Sorkuntza: Gure burutik, pertsonaiaren burura.

Zoriari, ezjakintasunari, memoriari nola forma eman? Norberak idatzitako testu bat abiapuntu bezala hartuta, galdera honi erantzunak bilatzen saiatuko gara. Desordena ordenatzen saiatuko gara. Zoriz sortutako imaginek zentzua har dezaketela ikusiko dugu. Memoria zerbait berria sortzeko aitzaki bihurtuko dugu. Gorputza, ekintza eta hitzaren arteko loturak ikusiko ditugu.

**ANTOLATZAILEA: Artedrama**

**Laguntzaileak: Aulestiko Udala, Aulestiko herria eta Bizkaiko Foru Aldundia**

**633 567 646 info@artedrama.com**